d) Kontratua eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari adjudikatzeko proposamena egitea kontratazio-organoari, SPKLren 145. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, lizitazioa arautzen duen administrazio-baldintza partikularren agiriaren arabera.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

PROPOSAMENAK irekitzeko ekitaldiak honela egingo dira:

Lekua	Bileraren deialdian adierazten denaren arabera: - Aurrez aurre, Zumaiako Udaleko bilera-aretoan. - Telematikoki, streamming bidez, helbide honetan: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_zumaia_es.html.
Data eta ordua	Kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Plataforman adierazitakoa.

21. Kontratazio-mahaiaren jarduna eta proposamenak irekitzea.

Proposamenak aurkezteko epea bukaturik, prozeduran ez denez jasotzen baliojudizio baten arabera kuantifikatu beharreko adjudikazio-irizpiderik, kontrataziomahaiak egintza publikoan irekiko ditu artxibo bakarrak, baliabide telematikoen bidez egingo da, streaming bidez, merkatuko baliabide teknologikoak kontuan hartuta, ekitaldiaren publizitate handiena denbora errealean emateko, eta proposamenak irakurri egingo ditu. Jendaurreko ekitaldia amaitutakoan, saio berean, lizitatzaileek aurkeztutako adierazpena kalifikatuko du mahaiak. Dokumentazio orokorrean akats materialak antzemanez gero, interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez ere hiru egun naturaleko epea emango dio enpresa lizitatzaileari akatsa zuzen dezan (SPKLren 141.2 artikulua).

Interesdunei bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie.

Hala ere, lizitatzaile baten deklarazioak funtsezko akatsak edo konpondu ezin diren akats materialak baditu, ez da lizitazioan onartuko.

Eskatutakoa epe barruan zuzentzen ez bada, kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak ulertuko du lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan.

Behin dokumentazioa kalifikatuta eta, hala badagokio, adierazitako jarduketak eginda, Kontratazio Mahaiak berariazko erabakia emango du lizitaziorako onartu direnen, baztertu direnen eta baztertzeko arrazoien inguruan. Eskaintzak baloratu aurretik, AKPPren 24. klausulan MINERVA aplikazioari buruz adierazitako jarduketak egingo dira.

Kontratazio-mahaiaren ekintzen emaitzen publizitatea: Kontratazio-mahaiak egindako guztia aktetan jasoko da, eta akta horietan prozeduraren emaitza eta izan ditzakeen gorabeherak adieraziko dira. Akta horiek kontratatzailearen profilean argitaratzen den kontratu bakoitzaren iragarki-taulan argitaratuko dira.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

22. Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak SPKLren 149. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko dira, eta karatulako 27. atalean eta/edo administrazio-baldintza partikularren agiri honen eranskinetan jaso beharko dira balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak zein diren jakiteko parametro objektiboak.

Entzunaldi-epe bat emango da eskaintzen ezaugarrien arabera, gutxienez hiru (3) eta gehienez hamar (10) egun baliodunekoa.

Prozeduran, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Nolanahi ere, eskaintzak baztertu egingo dira egiaztatzen badute anormalki baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dituztelako betetzen ingurumen-, gizarte- edo lan-arloan aplikatu beharreko betebeharrak, Estatukoak edo nazioartekoak, indarrean dauden hitzarmen kolektibo sektorialak ez betetzea barne, 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Nolanahi ere, justifikazioak ez du behar bezala azaltzen lizitatzaileak proposatutako prezio edo kostuen maila baxua, hura osatugabea denean edo ikuspegi tekniko, juridiko edo ekonomikotik desegokiak diren hipotesi edo jardunbideetan oinarritzen denean.

Ustezko anormaltasun batean sartuta egon den enpresa bati kontratua adjudikatzen zaionean, kontratazio-organoak mekanismo egokiak ezarriko ditu kontratuaren exekuzioaren jarraipen xehatua egiteko, kontratua behar bezala gauzatzen dela bermatzeko, kontratatutako zerbitzuen kalitatea murriztu gabe.

23. Berdinketa hausteko irizpideak.

Onuraz proposamen berdintsuak daudenean (bi hamartar arteko berdintasuna puntuazioan), kontratua adjudikatzerakoan lehentasuna emateko, berdinketa hausteko irizpide hauek aplikatuko dira, lehentasun-ordenaren arabera:

1.- Desgaitasuna duten langileen ehunekoa handiagoa izatea araudiak ezartzen duena baino.
2.- Plantillan desgaitasuna duten langile finkoen ehuneko handiagoa.
3.- Laneratzeko enpresen erregimena arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako laneratzeko enpresen proposamenak.
4.- Nortasun juridikoa duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurkeztutako proposamenak, baldin eta haien helburuak edo jarduerak lotura zuzena badu kontratuaren xedearekin, eta soilik gizarte- edo laguntza-prestazioei buruzko kontratuen kasuan).
5.- Bidezko merkataritzako antolakunde gisa aitortutako erakundeen eskaintzak, bidezko merkataritzako hautabidea duten produktuak objektutzat dituzten kontratuak adjudikatzeko.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

6.- Enpresek aurkeztutako proposamenak, baldin eta eskaintzak aurkezteko epea amaitzean, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko gizarte- eta lan-arloko neurriak jasotzen badituzte.

Berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa, atal honetan aipatzen dena, berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dute lizitatzaileek, eta ez aldez aurretik.

Horretarako, kontratazio-mahaiak dagokion dokumentazioa eskatuko die eragindako enpresei, eta gutxienez bost egun naturaleko epea emango die aurkezteko.

IV.- ESKAINTZEN SAILKAPENA, ADJUDIKAZIOA ETA KONTRATUA FORMALIZATZEA

24. Eskaintzen sailkapena.

Prozedura bakoitzeko eskaintzak edo eskaerak baloratu aurretik, kontratazio-organoaren titularrak honako informazio hau bildu eta txertatuko du ZAEAren MINERVA tresnan:

- Eragiketaren erreferentzia-kodea aldez aurretik CoFFEEn (CRO).
- Kontratazio-organoko kideen eta kide anitzeko laguntza-organoko kideen zerrenda, izen-abizenak eta IFZ adierazita.
- Prozeduran parte hartzen duten pertsona fisikoen izen-abizenak edo IFZ jasotzen dituen zerrenda. Pertsona juridikoak badira, sozietatearen izena eta IFZ adieraziko dira. Parte-hartzaileak Espainiako MINERVA IFZrik ez badu, ez dauka azterketa egiteko informaziorik, eta, ondorioz, bandera beltza jasotzeari lotutako eragiketa gauzatuko da kasuistika horretarako.

Datuak gurutzatu ondoren, MINERVAk hurrengo egunean emango dio kontratazio-organoaren titularrari interes-gatazkaren arriskuaren azterketaren emaitza.

Analisi horretatik, bandera gorriak eta/edo beltzak detektatu ahal izango dira edo ez:

- Bandera gorririk aurkitu ez bada, prozedurak aurrera jarraituko du.
- Bandera gorri bat edo gehiago aurkitu badira, eragindako erabakitzailearen egoera argitu beharko da. Egoera hori argitzen ez den bitartean, ezin izango da prozedurarekin jarraitu. Horretarako, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 5. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu beharko zaio. Agindu hori STEPa gauzatzen duten prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa da.
- Bandera beltz bat edo gehiago detektatu badira, prozedura ez da automatikoki etengo. Kasu horretan, kontratazio-organoak benetako titulartasunari buruzko informazioa eskatuko die parte-hartzaileei.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

Informazio hori bost egun balioduneko epean eman beharko zaio kontratazio-organoari, informazio-eskaera egiten denetik zenbatzen hasita, eta ez entregatzea parte hartzen ari den prozeduratik baztertzeko arrazoia izango da.

MINERVAk interes-gatazkaren arriskuaren azterketaren emaitza helarazi ondoren, egun berean, baina publikoa ez den ekitaldi batean, Kontratazio Mahaiak honako hauek egingo ditu:

1.- Baldintza-agiriko eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ondoren, hala badagokio, eskaintzak ebaluatu eta sailkatzea. Eskaintzak ebaluatzeko, ez ditu kontuan hartuko ez onartzeko proposatu dituen eskaintzak.
2.- Puntuazio onena duen hautagaiaren aldeko adjudikazio-proposamena egitea.
3.- Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatzea enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko ahalmen nahikoa duela, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa duela edo, hala badagokio, dagokion sailkapena duela eta kontratatzeko inolako debekurik ez duela.
4.- Puntuaziorik onena lortu duen enpresari behin betiko bermea eratzeko eskatzea, bai eta SPKLren 75.2 artikuluak aipatzen duen konpromisoa eta kontratua exekutatzeko hitzemandako baliabideak benetan dituela egiaztatzen duen dokumentazioa, SPKLren 76.2 artikuluaren arabera, eta hori guztia jakinarazpena bidali eta zazpi egun balioduneko epean.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza nabarmenki baxuegia dela uste bada 22. klausulan aurreikusitako kasuak gertatzen direlako, mahaiak, aurreko 1. eta 2. puntuetan jasotako jarduketak egin ondoren, klausula horretan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, baina lizitatzaileak bere eskaintza justifikatzeko gehieneko epea ez da bost egun baliodunetik gorakoa izango, dagokion jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen proposatutako lizitatzaileari, eta hark ez ditu eskuratuko Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatzen ez den bitartean. Hala ere, kontratazio-organoak ez badu kontratua proposamenaren arabera adjudikatzen, arrazoitu egin beharko du erabakia.

25. Adjudikatu aurreko dokumentazioaren errekerimendua.

Hori guztia, SPKLren 159.4.f) artikulua. Puntuazio onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio, jakinarazpen hori bidali eta **ZAZPI (7) EGUN BALIODUNEKO** epean, honako alderdi hauek egiaztatzeko:

1.- <u>Behin betiko bermea</u>.- Udal diruzaintzan administrazio kontratatzailearen aldeko behin betiko bermea eratu izanaren frogagiria.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

- Zenbatekoa: baldintza-agiri honen karatulako **29. atalean** (behin betiko bermea) ezartzen da.
- Bermea emateko moduak: legean aurreikusitako edozein modutan eman ahal izango da bermea (baldintza-agiri honen VI. eranskinean aurreikusitako ereduaren arabera).
- Administrazioak beretzat gordetzen du abalen sinaduraren legitimazioa eskatzeko eskubidea.
- Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, parte hartzen duten enpresen izen sozialak eta IFZ zehaztu beharko dira. Era berean, enpresa parte-hartzaile batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte bermeak, baldin eta guztira eskatzen den zenbatekora iristen bada eta aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten guztiak solidarioki bermatzen baditu.

2.- Proposamenean hala adierazi badu, **kaudimena kanpoko baliabideekin integratzeko konpromisoa**, V. eranskineko ereduaren arabera.

3.- **Kontratua gauzatzeko hitzemandako baliabideak** badituela egiaztatzen duen dokumentazioa, SPKLren 76.2 artikuluak xedatutakoaren arabera.

4.- **Adjudikazioduna aldi baterako enpresa-elkartea** bada, elkartea **formalizatzeko eskritura publikoa** aurkeztu beharko du. Era berean, elkarteko kide bakoitzak Ogasunen eta Gizarte Segurantzaren arloko ziurtagiri positiboa eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko dokumentazioa aurkeztuko ditu.

5.- Enpresaburuaren sailkapena nahitaezkoa ez den prozeduretan, baldintza-agirietan eskatutako **kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala** betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa: Alderdi hori egiaztatzeko, adjudikaziodunak honako hauek aurkeztu ahal izango ditu:

a) Karatulako **15. atalean** adierazitako dokumentazioa, gutxieneko kaudimen-betekizunak betetzen direla egiaztatzeko.
b) Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialak emandako **ziurtagiria** edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiria, baldintza-agirietan eskatutako kaudimena edo kaudimen horren ordez erabil daitekeen sailkapena betetzen duela egiaztatzen duena. Ziurtagiriarekin batera **erantzukizunpeko adierazpena** aurkeztu behar da, ziurtagirian jasotakoa ez dela aldatu adierazten duena (baldintza-agiri honen **VIII. eranskineko** ereduaren arabera).

6.- **Enpresa-gaikuntzaren** egiaztagiriak, karatulako 14. atalean eskatuz gero.

7.- **Erreserbatutako kontratuak**: erreserbatutako kontratuen kasuan, lizitatzaileak agiri bidez egiaztatu beharko du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.

8.- **Baldintza-agiri honen 29. klausulan adierazten diren aseguru-polizen kopiak edo izenpetze-egiaztagiriak**, klausula horretan azaltzen diren baldintzetan.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

9.- Adjudikaziodunak azpikontratatu nahi dituen enpresekin **azpikontratazioa egin duela egiaztatzen duen dokumentazioa**, baldintza-agiri honen 52. klausulan adierazitakoaren arabera.

10.- Baldintza-agiri honen XI. apartatuan adierazitako betebeharrak betetzeko dokumentazioa.

Kontratazio-mahaiak egiaztatuko du adjudikaziodun gisa proposatutakoak dokumentu bidez egiaztatzen duen eskatutako partaidetza-baldintzak betetzen dituela, eta dagozkion erakundeei eskatuko die zerga-zorrik eta Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez duela egiaztatzeko.

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak frogagiri guztiak edo batzuk aurkezteko eskatu ahal izango die lizitatzaileei, baldin eta uste badute arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruz, prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa denean eta, nolanahi ere, kontratua adjudikatu aurretik.

Lizitatzaileak kontratatzeko debekua izango du, SPKL, 71.1.e) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, bere gaitasunari, ordezkaritzari eta kaudimenari buruzko erantzukizunpeko adierazpenak egitean gezurra esan badu.

Zuzenketa.- Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo omisioak antzemanez gero, interesdunari eskakizuna egingo zaio, eta gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango zaio horiek zuzendu edo zuzentzeko.

Ez betetzea.- Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez badu, eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZik gabe), zigor gisa. Zenbateko hori, lehenik eta behin, behin-behineko bermearekin ordainduko da, baldin eta berme hori eratu bada, SPKLren 71.2.3. artikuluko a) letran ezarritakoari kalterik egin gabe.
- Hurrengo lizitatzaileari dokumentazio bera eskatzea, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera.

Lizitatzaileen Erregistroko ZIURTAGIRI bidez egiaztatzea:

Enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta badago, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean jasota badago (enpresaren espediente birtual batean, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema batean edo aurrekalifikatzeko sistema batean, adibidez), eta aipatutako organoek dohainik eskuratu baditzakete datu horiek, enpresaburua ez dago behartuta justifikazio-dokumentuak edo leku horietan inskribatutako datuen bestelako dokumentu-

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

frogak aurkeztera, eta lizitatzaileak dagokion erregistroan inskribatuta dagoela berariaz adieraztea baino ez da beharrezkoa izango.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeak, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ezean, kontratazio-deialdietan enpresaburuaren gaitasun-baldintzak aurkeztetik salbuetsiko ditu inskribatutako lizitatzaileak, honako hauei dagokienez: nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, lanbide- edo enpresa-gaikuntza, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, eta sailkapena, bai eta bertan jaso beharreko kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatzen duen agiria aurkeztetik ere.

SPKLren 139.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, proposamenak aurkezteak baimena ematen die kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko kide den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Lotutako inguruabarrak egiaztatu ordez (jarduteko gaitasuna, kontratisten ordezkaritza eta sailkapena eta abar egiaztatzen dituzten agiriak), honako erregistro hauetako ZIURTAGIRIA aurkeztu ahal izango da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala, edo

b) Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofiziala (hala badagokio), edo

c) Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiriaren bidez.

Dagokion Erregistroaren ziurtagirian jasotzen ez diren inguruabarrei dagokienez, eskatzen diren egiaztagiriak erantsiko dira.

Nolanahi ere, ziurtagiriarekin batera lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, ziurtagirian jasotako datuak ez direla aldatu adierazten duena.

26. Adjudikazioa.

Behin betiko bermea aurkeztu ondoren, eta, nahitaezkoa den kasuetan, Kontu-hartzailetzak gastu-konpromisoa fiskalizatu ondoren, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako baldintzetan, gehienez ere 5 eguneko epean, kontratua adjudikatuko zaio adjudikaziodun gisa proposatutako lizitatzaileari, ebazpen arrazoitu bidez, eta, hura adjudikatu ondoren, formalizatu egingo da.

Horretarako emandako epean adjudikaziodun proposatutako hautagaiak behin betiko bermea aurkezten ez badu, puntuazioan dagoen hurrengo hautagaiaren

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

aldeko adjudikazio-proposamena egingo da, eta dagokion epea emango zaio behin betiko berme hori eratzeko.

Ezin izango da lizitazio bat adjudikatu gabe utzi, baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

Lizitatzaileei jakinaraztea: adjudikazio-ebazpena hautagai eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratua formalizatzeko epea adieraziko zaie, SPKLren 153.3. artikuluaren arabera. Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Adjudikazioaren publizitatea: Jakinarazpenarekin, adjudikazio-ebazpenarekin eta eskaintzen balorazio-txostenarekin batera, kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

Aurreko ataletan aipatzen diren jakinarazpenak eta publizitateak beharrezko informazioa jaso beharko dute, adjudikazio-prozeduran interesa dutenek adjudikazio-erabakiaren aurka behar bezala funtsatutako errekurtsoa jarri ahal izan dezaten, eta betiere SPKLren 151.2.artikuluan adierazten den edukia jasota.

Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia: espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik soilik hartu ahal izango da kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia. Kasu horretan, ezin izango da xedearen beste lizitazio bat sustatu, erabakia oinarritzeko alegatutako arrazoiek irauten duten bitartean.

Adjudikazio-prozeduran atzera egitea: kontratua prestatzeko arauetan edo adjudikazio-prozedura arautzen dutenetan zuzendu ezin den arau-hauste batean oinarritu beharko da prozeduran atzera egitea, eta espedientean justifikatu beharko da horretarako arrazoia. Atzera egiteak ez du eragotziko berehala lizitazio-prozedura bat hastea.

27. Kontratua burutzea.

Kontratua formalizatzen denean burutuko da, eta kontratazio-organoaren egoitza dagoen lekuan egin dela ulertuko da.

28. Kontratua formalizatzea.

Kontratua dokumentu administratibo batean formalizatu beharko da. Dokumentu horrek zehatz-mehatz bete beharko ditu lizitazioaren baldintzak, eta dokumentu hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahal izango du, eta bere kontura izango dira dagozkion gastuak. Kasu horretan, kontratistak dokumentu horren kopia legitimatu bat eta kopia sinple bat eman beharko dizkio Administrazioari, formalizatzen denetik hilabeteko epean gehienez ere.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

Kontratua formalizatzeko agirian ezin izango da, inola ere, adjudikazioaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik sartu.

SPKLren 99.7 artikuluak xedatutakoaren arabera, sorta bakoitza kontratu bat izango da, eskaintza integratzaileak aurkezten diren kasuetan izan ezik, horietan eskaintza guztiek kontratu bat osatuko baitute.

Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek kontratua adjudikatu bezain laster eskatuko zaio adjudikaziodunari kontratua formalizatzeko.

Kontratua formalizatzeko epea:

- Kontratuari kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal bazaio, formalizazioa ezin izango da egin adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaileei bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Epe hori igarotakoan, kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik jarri ez bada, edo, hala badagokio, errekurtsoa ebazteko organo eskudunak etetea kendu badu, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek kontratua formalizatzeko eskatuko diote adjudikaziodunari, **gehienez ere bost eguneko epean**, formalizazio-errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

- Kontratuari ezin bazaio kontratazio-arloko errekurtso berezirik jarri, **hamabost egun balioduneko epean** formalizatu beharko da kontratua, adjudikazioa lizitatzaileei eta hautagaiei jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, SPKLren, 151. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ezin izango da kontratua gauzatzen hasi aldez aurretik formalizatu gabe, salbu eta espedientearen izapidetzea presazkoa edo larrialdikoa denean.

Ez formalizatzearen ondorioak (153. art.): Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ezin bada kontratua legez ezarritako epeetan formalizatu, honako jarduketa hauek egingo dira:

1.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZik gabe) zigor gisa. Zenbateko hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearen kontra ordainduko da, baldin eta berme hori eratu bada, SPKLren 71.2.3. artikuluko a) letran ezarritakoari kalterik egin gabe.
2.- Kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatzea, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran, aldez aurretik errekerimendua eginda eta baldintza-agiri honen **25. klausulan** adierazitako dokumentazioa aurkeztuta.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak administrazioari egotzi ahal bazaizkio, berandutzeak eragin diezazkiokeen kalte-galeren ordaina emango zaio kontratistari.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

Kontratua formalizatzeko iragarkia: kontratuen formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, gehienez ere hamabost (15) eguneko epean argitaratu beharko da, kontratua burutu ondoren, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Kontratua erregulazio harmonizatukoa denean, formalizazio-iragarkia, gainera, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, SPKLren 154. artikuluan adierazitakoaren arabera

29. Aseguruak.

Kontratistak, kontratuaren xede den guztiari edo sorta bakoitzari dagokionez, adierazten diren aseguru-polizak izenpetu eta bere kargura mantendu beharko ditu kontratuaren iraupen-aldian eta berme-epean, jarraian ezartzen diren kontzeptu, zenbateko, estaldura, iraupen eta baldintzetan:

1.- Eraikuntzako Arrisku Orotarako Asegurua: aseguratutako zenbatekoa kontratuaren adjudikazioaren zenbatekora iritsi beharko da (BEZik gabe).

2.- Erantzukizun zibileko asegurua: alderdi orokorrei edo ustiapenari, patronalari eta amaitutako lanei dagokienez, aseguratu gisa Zumaiako Udala, kontratista eta, hala badagokio, azpikontratista sartuta.

Ustiapenaren erantzukizun zibilerako frankizia ezin izango da 10.000 eurotik gorakoa izan, eta ezbeharragatiko kalte-ordainaren gutxieneko muga honako hau izango da:

LIZITAZIOAREN PREZIOA (EUROTAN)	KALTE-ORDAINAREN GUTXIENEKO MUGA (EUROTAN)
1.000.000 €-raino	300.000
1.000.001 eta 3.000.000.- € artean	600.000
3.000.001 eta 9.000.000.- € artean	1.500.000
9.000.001 eta 25.000.000.- € artean	3.000.000
25.000.001 eta 75.000.000.- € artean	6.000.000
75.000.000 €-tik gora	12.000.000 €

Kalte-galeren kalte-ordainaren araubidea SPKLren 196. artikuluan ezarritakoa izango da, eta, horren arabera, kontratista izango da kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei zuzenean edo zeharka eragindako kalte eta galera guztien erantzulea. Eragindako kalte-galerak Administrazioak emandako agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorio badira, Administrazioa izango da erantzule, legeetan adierazitako mugen barruan.

Kontratistak kontratuaren xede diren prestazioak behar ez bezala gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galerak ordaintzeko betebeharra betetzen ez badu, administrazioak baldintza-agiri honetan kontratuaren xede osoari edo, hala badagokio, sorta bakoitzari buruz zehazten diren zigorrak ezarriko ditu.

Nolanahi ere, adjudikaziodunak kalte eta galerak jasan beharko ditu frankiziaren zenbatekoan eta aseguru-polizetan ezarritako mugak gainditzen dituztenetan, bai eta poliza horietan estaltzen ez diren ondasun eta arriskuetan ere.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

Aurreikusitako data baino beranduago amaitzen bada kontratua, behar diren luzapenak kontratatuko dira, eta adjudikaziodunak dagokion gainprima ordaindu beharko du.

Hori egiaztatzeko, adjudikaziodunak sinatutako polizak baldintza-agiri honetan deskribatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen aseguru-entitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko da. Horretarako, **VII. eranskineko** eredua erabili ahal izango da.

II. ZATIA

OBRA-KONTRATUEN ONDORIOAK, BETETZEA ETA AZKENTZEA

V. KONTRATUAREN EXEKUZIOA.

30. Zuinketa egiaztatzea

Obra-kontratua zuinketa egiaztatzeko aktarekin hasiko da gauzatzen. Horretarako, kontratuan jasotzen den epearen barruan –ezin izango da hilabete baino luzeagoa izan kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik–, obren ardura duen Administrazioaren zerbitzuak, kontratistaren aurrean, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko du, eta emaitzaren akta egingo du. Akta hori bi alderdi interesdunek sinatuko dute, eta horren ale bat bidaliko zaio kontratua egin zuen organoari.

Kontratazio-espedientea presaz izapidetu beharrekotzat jo bada, adjudikaziodunak behin betiko bermea eratu duenetik aurrera egiaztatuko da zuinketa.

Obren zuzendari fakultatiboaren iritzi, eta kontratistak erreserbarik egin gabe, zuinketaren egiaztapenaren emaitzak frogatzen badu lursailen edukitza eta benetako xedapena, horien egokitasuna eta proiektuaren bideragarritasuna, obraren zuzendariak emango du horiek hasteko baimena. Alderdi hori berariaz jasoko da egindako aktan, eta kontratistari horren berri emango zaio, sinatu egin duelako, eta obrak egiteko epea zenbatzen hasiko da akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.
Kontratua kontratistaren arrisku eta menturarekin gauzatuko da, ezinbesteko kasuetan izan ezik, eta SPKLren 239. artikuluan adierazitako baldintzetan.

Obrak administrazio-baldintza partikularren agirian jasotako estipulazioei eta kontratuaren oinarri den proiektuari hertsiki lotuta egingo dira, eta obren zuzendaritza teknikoak interpretazio teknikoa egiteko kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera.

Jarraibideak hitzezkoak direnean, idatziz berretsi beharko dira ahalik eta eperik laburrenean, alderdientzat lotesleak izan daitezen.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

Obrak egiten diren bitartean eta berme-epea bete arte, kontratista da eraikuntzan antzeman daitezkeen akats guztien erantzulea.

Kontratu-dokumentuak ezin izango ditu jaso alderdientzat eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituzten estipulazioak, baldintza-agirietan aurreikusitakoez bestelakoak, adjudikaziodunaren proposamenetik ondorioztatzen den moduan zehaztuta, edo kontratua adjudikatzeko egintzan zehaztutakoak, prozeduran jardundakoaren arabera, halakorik ez badago.

31. Segurtasun eta Osasun Plana.

Berariazko araudiak salbuesten duenean izan ezik, segurtasun- eta osasun-azterlana egin beharko da, edo, hala badagokio, oinarrizko azterlana, hala dagokionean, Errege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera. Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua, eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena; kontratistak laneko segurtasun- eta osasun-plan bat egingo du obra bakoitzerako, azterlanean edo oinarrizko azterlanean jasotako aurreikuspenak aztertu, garatu eta osatzeko, obra gauzatzeko bere sistemaren arabera.

Segurtasun- eta osasun-plana obra bakoitza hasi baino lehen onartu beharko du kontratazio-organoak, obra egiten den bitartean segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileak edo, hala badagokio, zuzendariak txostena egin ondoren.

32. Obrak seinaleztatzea.

Kontratista behartuta dago, bere kontura, obrarako sarbidea, lanak egiten ari diren eremuko zirkulazioa eta lanak direla-eta egon daitezkeen arrisku-puntuak adierazteko beharrezko seinaleak jartzera, bai eremu horretan, bai mugetan eta inguruetan.

Kontratistak zuzendaritzak seinale osagarrien instalazioei buruz edo instalatutako seinaleen aldaketei buruz idatziz jasotzen dituen aginduak beteko ditu. Seinaleak sortzen dituen gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea igaro eta kontratistak ez badu seinaleztapena jarri, Administrazioak berak instalatuko du, eta gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Gauzatzeko hizkuntza-baldintzak.

Kontratista adjudikaziodunak eta balizko azpikontratistek ABPAren 41. atalean eta baldintza teknikoen agirian ezarritakoa bete beharko dute.

33. Obraren zuzendaritza eta kontratistaren ordezkaria.

Administrazioak, horretarako izendatutako zuzendari fakultatiboaren bitartez, kontratatutako obra behar bezala egiteko ikuskapena, egiaztapena eta zaintza

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

egingo ditu, eta bere aginduak eta jarraibideak emango dizkio kontratistari, obra-ordezkariaren bidez.

Kontratistak izendatutako eta Administrazioak onartutako pertsona izan beharko da kontratistaren obra-ordezkaria, kontratazioaren xede den obraren antzekoetan esperientzia egiaztatua duena.

34. Kontratuaren xede diren lanak ikuskatzeko arduraduna.

Kontratazio-organoak pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu ahal izango du, erakunde kontratatzaileari lotuta edo harekin zerikusirik ez duena, lanaren arduradun gisa. Pertsona horrek lanaren gauzatzea gainbegiratuko du, kontratuan ezarritakoarekin bat datorrela egiaztatuz, eta kontratazio-organoaren aginduak eta jarraibideak emango dizkio kontratistari. Bereziki, kontratuaren arduradun izendatzen denari dagokio, hala badagokio, honako eskumen hauek:

- Kontratua bete ezean kontratistari ezarri beharreko zigorrak proposatzea kontratazio-organoari.
- Obra-harrera egitera joatea eta, hala badagokio, hartutzat jotzea.

Eskuduntza horiek obraren zuzendari fakultatiboari dagozkionei kalterik egin gabe ulertuko dira.

35. Kontratistaren betebeharrak

Kontratua administrazio-baldintza partikularren agiri honetan jasotako estipulazioei zorrotz lotuta gauzatuko da, obrak gauzatzeko proiektuan eta preskripzio teknikoen agirian ezarritakoa zintzo betez, eta bertan adierazitako epeen barruan, bai eta, hala badagokio, zuzendari fakultatiboak eta/edo kontratazio-organoak izendatutako kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak ere.

Adjudikaziodunak nahitaez jarri behar ditu, bere kontura, jarduketaren identifikazio-kartelak, obrarako sarbidea adierazteko beharrezko seinaleak, lanek hartzen duten eremuko zirkulazioa eta obrek eragin ditzaketen arrisku-puntuak, bai eremu horretan, bai haren mugetan eta inguruetan.

2.- Obrak egiten diren bitartean eta berme-epea bete arte, kontratista da eraikuntzan antzeman daitezkeen akatsen erantzulea.

Administrazioak izendatutako fakultatibo zuzendariaren iritziz obraren zatiren bat gaizki gauzatuta badago, kontratistak obra berregin beharko du, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, nahiz eta obra hartu ondoren ikusi.

Zuzendaritzak uste badu obra-unitate akastunak edo kontratuaren baldintzak zorrotz betetzen ez dituztenak onargarriak direla, Administrazioari proposa diezaioke horiek onartzea, eta, ondorioz, prezioak jaistea. Kasu horretan, kontratistak nahitaez onartu beharko ditu Administrazioak finkatutako prezio beheratuak, salbu eta nahiago badu

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

unitate akastunak bere kontura eta kontratuaren baldintzen arabera eraitsi eta berreraiki.

3.- Kontratuaren exekuzioa kontratistaren arrisku eta menturan egingo da, SPKLren 239. artikuluan aipatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

4.- Kontratistaren betebeharra izango da kontratua gauzatzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei sortzen zaizkien kalte eta galera guztiak ordaintzea, bere kabuz edo haren mendeko langile edo bitartekoen bidez. Kalte eta galera horiek Administrazioaren agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorio gisa sortu direnean, Administrazioa izango da erantzule, legeetan adierazitako mugen barruan.

Kontratua enpresa batekin baino gehiagorekin batera gauzatzen bada, guztiek erantzungo diete modu solidarioan klausula honetan aipatzen diren erantzukizunei.

5.- Kontratistak, bere erantzukizunpean, lan-arloan, gizarte-segurantzan eta laneko segurtasun eta higienean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, eta kontratuaren xedea gauzatzeko behar diren langileak izan beharko ditu bere kargura. Langile horiek enpresaburu izango dira ondorio guztietarako.

6.- Kontratistak isilpean gorde beharko ditu datu edo aurrekariak, publikoak edo nabarmenak ez badira ere, kontratuaren xedearekin zerikusia badute eta hura dela-eta jakin baditu.

7.- Berme-epea amaitu ondoren kontratistak kontratua ez betetzeagatik eraikuntzaren ezkutuko akatsengatik obra hondatzen bada, kontratista izango da kalte-galeren erantzule hamabost urteko epean, obrak jasotzen dituenetik kontatzen hasita. Epe hori igaro eta artean ez bada inolako kalte edo galerarik agertu, erabat azkenduta geratuko da kontratistaren edozein erantzukizun.

36. Kontratistaren konturako gastuak eta zergak

1. Edozein obra-unitate behar bezala gauzatzeko eta akabera emateko beharrezkoak diren lan, bitarteko lagungarri eta material guztiak haren prezioan sartutzat joko dira, nahiz eta guztiak ez agertu prezioen deskonposizioan edo deskribapenean.

2. Beren kontzeptuagatik erregelamendu honen 130.3 artikuluan aipatzen diren zeharkako kostuen titulu orokorrarekin parekatu daitezkeen gastu guztiak proiektuaren obra-unitateen prezioetan sartuta daudela joko da beti, aurrekontuan obra-unitateetan edo partide altxatuetan baloratuta ez daudenean.

3. Lizitazioa aldizkari ofizialetan argitaratzearen ondoriozko gastu guztiak kontratistaren kontura izango dira, bai eta kontratua formalizatzearen ondoriozkoak ere, kontratua eskritura publiko bihurtzen bada.

4. Kontratistaren kontura izango dira obraren zuzendaritzak adostutako entsegu- eta kalitate-kontrolen gastuak, obraren aurrekontuaren % 1, gehienez ere. Hala ere,

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

obraren kalitate- eta gauzatze-akatsen ondorioz egin beharreko kontroletatik eratorritako gastuek ez dute halako mugarik izango, eta kontratistaren kontura izango dira oso-osorik.

Lizitatzaileek aurkeztutako proposamenetan zein adjudikazio-aurrekontuetan sartzen dira hirigintza-lizentziengatiko eta eraikuntzen gaineko zuzeneko eta zeharkako zergengatiko tasen gastu guztiak, bai eta kontratua betearaztea zergapetzen duten udal-arielak ere, bai eta kontratu honetako obren eta instalazioen kalitatea kontrolatzeko programaren proiektua, analisiak, entseguak eta kontrolak gainbegiratzeko gastuak ere. Baimendutako kontrol-erakundeak proposatu eta egin behar ditu gastu horiek, obraren zuzendari fakultatiboak baimena eman ondoren, salbu eta administrazioari dagokion Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ), eta hori partida independente gisa adieraziko da.

Adjudikazioaren zenbatekoaren barruan, adjudikaziodunaren kontura izango dira, halaber, kudeaketak egitea, gastu, tasa, zerga eta abar guztiak ordaintzea, bai eta erakunde eskudunetan aurkeztu beharreko proiektuak idaztea eta ikus-onestea ere, instalazioak martxan jartzeko alta eta baimena lortzeko, sareetara eta zerbitzuetara lotzeko, beharrezko behin-behineko hartuneak egiteko eta, oro har, instalazioen funtzionamendu egokia eta legeztatua lortzeko behar den guztia lortzeko, nahiz eta erakunde adjudikatzaile horren izenean tituludunak izan.

Adjudikaziodunaren proposamenean eta kontratuaren prezioan ere sartzen dira kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bestelako gastuak.

37. Kontratistaren oinordetza

Enpresa batek bat egiten badu eta enpresa horretan sozietate kontratistak parte hartzen badu, indarrean dagoen kontratuak aurrera egingo du erakunde xurgatzailearekin edo bat-egitearen ondoriozkoarekin, eta horren ondoriozko eskubide eta betebehar guztietan subrogatuta geratuko da. Era berean, enpresen edo horien jarduera-adarren banantze, ekarpen edo eskualdatze kasuetan, kontratua adjudikatzen zaion erakundearekin jarraituko du kontratuak, eta hark subrogatuko ditu kontratuaren ondoriozko eskubide eta betebeharrak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen baditu: gaitasun-baldintzak, kontratatzeko debekurik eza, adjudikazioa erabakitzean eskatzen den kaudimena, edo aipatutako eragiketen onuradun diren sozietateek eta, bizirik irauten badute, ondarearen jatorri den sozietateak, enpresa edo adar bereiziek kontratua gauzatzearen erantzukizun solidarioa hartzen badute. Subrogazioa ezin bada egin kontratua adjudikatu zaion erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta, ondorio guztietarako, adjudikaziodunaren erruz suntsiarazpen-kasutzat hartuko da.

Aurreko ondorioetarako, gertatu dena jakinarazi beharko dio enpresak kontratazio-organoari.

Hasierako kontratista aldi baterako enpresa-elkartea denean, arau hauek beteko dira:

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

a) Aldi baterako enpresa-elkartearen osaera aldatzeak berekin badakar enpresa-kopurua handitzea, enpresa kopurua gutxitzea edo enpresa bat edo batzuk beste enpresa batekin edo batzuekin ordeztea, kontratazio-organoaren aldez aurreko berariazko baimena beharko da, eta kontratuaren zenbatekoaren ehuneko 20 gutxienez gauzatu beharko da. Nolanahi ere, beharrezkoa izango da eskatutako kaudimenari edo sailkapenari eustea, eta aldi baterako enpresa-elkartearen konfigurazio berrian elkartea osatzen duten enpresek jarduteko gaitasun osoa izatea eta kontratatzeko debekurik ez izatea.
b) Aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duen enpresa bati edo batzuei dagokienez, bategite-, zatitze- edo jarduera-adarraren eskualdatze-eragiketak egiten direnean, kontratua gauzatzen jarraituko da aldi baterako enpresa-elkarte adjudikaziodunarekin. Sozietate xurgatzailea, bat-egitearen ondoriozkoa, zatiketaren onuraduna edo jarduera-adarraren eskuratzailea aldi baterako elkartea osatzen duten enpresak ez badira, jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, kontratatzeko debekurik ez izan beharko dute eta eskatutako kaudimenari, gaitasunari edo sailkapenari eutsi beharko diote.
c) Aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duen enpresa bat edo batzuk hartzekodunen konkurtsoan deklaratzen direnean, eta likidazio-fasea ireki bada ere, gainerako enpresarekin edo enpresekin jarraituko du kontratua gauzatzen, baldin eta eskatutako kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen badituzte.

38. Epeak betetzea.

Kontratista behartuta dago kontratua betetzeko ezarritako epe osoaren barruan betetzera, bai eta kontratua ondoz ondo gauzatzeko ezarritako epe partzialen barruan ere. Kontratista berandutzen bada, administrazioak ez du aldez aurretik agindurik eman beharrik izango.

Obrek atzerapenik jasoz gero, eta, betiere, atzerapen hori kontratistari egotzi ezin bazaio eta kontratistak, hasierako exekuzio-epea luzatuz gero, bere konpromisoak betetzea eskaintzen badu, kontratazio-organoak eman egingo dio, eta gutxienez galdutako denboraren berdina izango den epea emango dio, kontratistak beste epe laburrago bat eskatu ezean, SPKLren 195.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta betekizunak eta izapideak APKLEOren 100. artikuluaren arabera arautuko dira. Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du, atzerapena kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik gertatu ote zen zehazteko.

SPKLren 29.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresaburuak prestazioa gauzatzen berandutzen denean, kontratazio-organoak exekuzio-epea luzatu ahal izango du, bidezkoak diren zigorrak alde batera utzi gabe, eta lege horren 192. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa aplikatuko da.

39. Berandutzeagatiko zigorrak.

Kontratistari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik kontratua betetzen berandutuz gero, karatulako **36. puntuan** aurreikusitako zigorrak ezarriko dira, edo, halakorik ezean, honako hauek:

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

- Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, eratutako bermea galduta, edo eguneko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,60 euro (BEZik gabe).

- Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, zigor berriak ezarrita.

  Ahalmen hori bera izango du Administrazioak kontratistak epe partzialak ez betetzeari dagokionez, edo epe partzialak betetzen berandutzeak epe osoa betetzea ezinezkoa dela uste izatea eragiten duenean.

Zigorra ezartzeak ez du baztertzen kontratistari egotz dakiokeen atzerapenak eragindako kalte-galerengatik Administrazioak jaso dezakeen kalte-ordaina.

40. Betetze akastunagatiko zigorrak.

Kontratistak agiri honetan, obren exekuzio materialerako proiektuan, baldintza teknikoen agirian edo Sektore Publikoko Kontratuen Legean bertan adierazitako baldintzak eta eskakizunak bete behar ditu, bitartekoak atxikitzeko konpromisoa eta kontratazio-organoak ezarritako exekuzio-baldintza bereziak barne. Bestela, kontratazio-organoak, aldez aurretik arrazoituta, ez-betetzearen dokumentazioa aurkeztuta eta interesdunari gutxienez 5 eguneko epean entzunaldia eskaini ondoren, baldintza-agiri honetan adierazitako zigorrak ezarri ahal izango ditu, horiek eragin dituzten arrazoien arabera.

Jokabidea kontratuaren arau-hauste gisa tipifikatuta dagoen ala ez alde batera utzita, kontratazio-organoak ordaindu gabeko prestazioei dagokien zenbatekoa deskontatuko dio enpresari ordaintzetik, eta, kalterik edo galerarik izanez gero, dagokion kalte-ordaina eskatuko dio.

Nolanahi ere, kontratuaren prestazio nagusia betetzea exekuzio-baldintza berezia izango da ondorio guztietarako.

Kontratuaren ondorioetarako, zehatzeko moduko hutsegitetzat hartuko da kontratistak baldintza-agirietan edo SPKLn zehaztutako eskakizunak urratzen dituen ekintza edo ez-egite oro.

Arau-hausterik dagoen ala ez zehazteko, honako hauek baloratuko dira: ordaindu gabeko prestazioaren garrantzia, zabarkeriarik dagoen ala ez, prestazioak behin eta berriz eman gabe uztea, kontratu osoari dagokionez intzidentziaren garrantzia, eta abar. Hori dela eta, penalizazio horiek aplikatzerakoan, proportzionalak izan beharko dute kontratu osoan zigorra eragin duen ez-betetze motarekiko.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

Zigor-araubidea karatulako **36. atalean** aurreikusitakoa izango da. Karatulan beste zigorrik aurreikusten ez bada, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzea honela zigortuko da:

- Arau orokor gisa, horietako bakoitzaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 1 izango da, non eta kontratazio-organoak, arrazoituta, ez duen uste ez-betetze hori larria edo oso larria denik; kasu horretan, kontratuaren prezioaren (BEZik gabe) % 5era edo legezko gehienekora iritsi ahal izango dira, hurrenez hurren. Arau-haustea behin eta berriz egitea kontuan hartu ahal izango da larritasuna baloratzeko.

- Nolanahi ere, horietako bakoitzaren zenbatekoak ezin izango dira izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoak, BEZik gabe, eta guztizko zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratuaren prezioaren ehuneko 50.

- Nolanahi ere, zigorrak ezartzeak ez du kontratista salbuetsiko akatsak konpontzeko legez dagokion betebeharretik.

Klausula honetan aurreikusitako zigorrak kontratazio-organoaren erabakiz ezarriko dira. Erabaki hori kontratuaren arduradunak proposatuta hartuko da, baldin eta arduraduna izendatu bada, eta berehala betearaztekoa izango da. Zigorrak ordaintzeko, kontratistari ordainketa osoa edo partziala egiteagatik ordaindu beharreko zenbatekoak kenduko dira, edo, hala badagokio, eratutako bermea kenduko da, aipatutako ordainketetatik kendu ezin badira.

Kontratua betearazteko baldintza bereziak ez betetzeagatik zigorrik ezartzen ez bada, kontratazio-organoak funtsezko kontratu-betebeharren izaera eman beharko die, ez betetzea suntsiarazteko arrazoitzat jotzeko, SPKLren 202.3 eta 211 f) artikuluen arabera.

SPKLren 76.2 artikuluak giza baliabideak edo baliabide materialak atxikitzeko konpromisoari buruz dakarren funtsezko kontratu-betebeharrari dagokionez, gogorarazi behar da ezen, ez-betetzearen ondorioz kontratazio-organoak zigorrik ezartzen ez badu, kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartu beharko dela, SPKLren 211 f) artikuluaren arabera.

41.- Bermeak birjartzea eta berregokitzea

Kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak behin betiko bermearen gainean ordainduz gero, kontratistak hura berriz jarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, exekutatzen denetik hamabost eguneko epean, eta, bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratua aldatzearen ondorioz kontratuaren prezioa aldatzen bada, bermea egokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin behar bezalako proportzioa izan dezan, hamabost eguneko epean, aldaketa egiteko erabakia enpresaburuari jakinarazten

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

zaion egunetik zenbatzen hasita. Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko SPKLren 103. artikulutik 105. artikulura adierazitakoaren arabera egindako berrikuspenaren ondorioz gertatutako prezio-aldaketak.

Behin betiko bermea kauzio-aseguruaren kontratu bidez eratu bada eta kontratuaren iraupena bost urtetik gorakoa bada, kontratistak kauzio-aseguruaren kontratu bat aurkeztu ahal izango du behin betiko berme gisa, kontratuaren iraupena baino laburragoa. Kasu horretan, kauzio-aseguruaren kontratua amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago aurkeztu beharko du kontratua kontratistak, edo berme berri bat eman, edo kauzio-aseguruaren kontratua luzatu eta kontratazio-organoari egiaztatu. Bestela, behin betiko bermea konfiskatuko da, SPKLren 110.c) artikulua aplikatuta.

42. Kontratistari egindako ordainketak

Kontratistak eskubidea du, hitzartutako prezioen arabera, benetan egiten dituen obrak ordaintzeko, betiere, emandako kontratuaren, onartutako aldaketen eta Administrazioak emandako jarraibideen arabera.

Ordainketaren ondorioetarako, Administrazioak, dagokion hilabetearen ondorengo lehen hamar egunetan, denboraldi horretan proiektuaren arabera gauzatutako obra jasotzen duten ziurtagiriak emango ditu hilero, administrazio-baldintza partikularren agirian kontrakorik aurreikusi ezean. Ziurtagiri horien ordainketak konturako ordainketatzat hartuko dira, azken neurketan gertatzen diren zuzenketa eta aldaketei lotuta, eta, inola ere, ez dute esan nahi obrak onartu eta hartuko direnik. Hileko ziurtagiri horiek emango dira, nahiz eta hilabeteren batean obra unitaterik egin ez, eta "0 €." zenbatekoa adieraziko da.

Kontratistak konturako ordainketak ere jasotzeko eskubidea izango du, kontratua gauzatzeko prestaketa-eragiketen zenbatekoari dagozkionak. Nolanahi ere, bermea abal moduan edo legeak onartutako beste batean eratzeko eskatuko zaio.

Administrazioak ziurtagiriak eman eta hurrengo 30 egunen barruan onartu beharko ditu.

Obra-ziurtagiriak kontratistak emandako faktura elektronikoaren bidez ordainduko dira, hurrengo klausulan xedatutakoaren arabera.

Ondorio horietarako, 2017ko SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren bigarren atalarekin bat etorriz, aurkeztutako faktura bakoitzean kontabilitate publikoaren arloan eskumenak dituen administrazio-organoaren, kontratazio-organoaren eta hartzailearen identifikazioa jaso beharko du kontratistak.

Administrazioak obra-ziurtagiriak onartu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan ordaindu beharko du prezioa, eta atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuengatiko kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, hogeita hamar eguneko epe hori betetzen denetik aurrera, merkataritza-eragiketetan

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Kontratistak aurreikusi baino azkarrago egin ahal izango ditu lanak, kontratu-epeetan; hala ere, ez du eskubiderik izango dagokion urtean kontsignatutako prezioa baino gehiago jasotzeko, eta zenbateko hori gainditzen duten ziurtagiriak hurrengo urterokoa hasi ondoren ordainduko dira.

Kontratistak idatziz eskatu ondoren, konturako ordainketak egin ahal izango dira obrari atxikitako materialak eta instalazioen eta ekipoen gastuak metatzeagatik, HAKLren Erregelamendu Orokorraren 155., 156. eta 157. artikuluetan aurreikusitako moduan eta bermeekin.

Kobrantza-eskubideak eskualdatzea.- Administrazioaren aurrean kobratzeko eskubidea duten kontratistek zuzenbidearen arabera laga ahal izango dute, eta nahitaezkoa izango da Administrazioari lagapen-erabakia modu frogagarrian jakinaraztea.

Kontratistak lagatako kobrantza-eskubideen bigarren eta hurrengo lagapenen eraginkortasuna aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzearen baldintzapean egongo da.

Administrazioak lagapen-erabakiaren berri duenean, lagapen-hartzailearen alde eman beharko du ordainketa-agindua. Lagapena Administrazioari jakinarazi aurretik, kontratistaren edo lagatzailearen izenean egindako ordainketa-aginduek ondorio askatzaileak sortuko dituzte.

Kobrantza-eskubidearen sorburu den harreman juridikoa sortu aurreko lagapenek ez dute ondoriorik izango Administrazioaren aurrean. Nolanahi ere, Administrazioak kontratu-harremanetik eratorritako kausazko salbuespen guztiak aurkaratu ahal izango ditu lagapen-hartzailearen aurka.

Kontratistak kreditu-lagapena kontratatzen badu: berariaz debekatuta dago errekurtsorik gabe factoring-eragiketak formalizatzea kontratu honen ondoriozko eragiketak finantzatzeko.

43. Faktura elektronikoa.

Kontratistak, hileko obra-ziurtagiria egin ondoren, formatu elektronikoan aurkeztu beharko du faktura, Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua) bidez, Udalaren Aurrekontua Betearazteko Arauan xedatutakoaren arabera, Faktura elektronikoa sustatzeari eta Sektore Publikoan fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legea betez.

Fakturek DIR3ari dagozkion datuak jaso beharko dituzte, honela:

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

Zumaiako Udala, IFK: P2008700C:

Organo kudeatzailea: L01200816
Unitate tramitatzailea: L01200816
Kontabilitate bulegoa: L01200816

Fakturatzeko moduari dagokionez ikusi Baldintza teknikoen agiriko 2.2.12 atalean adierazitako zehaztapenak.

44. Prezioak berrikustea.

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturarekin gauzatuko da, SPKLren 103. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Prezioak, hala badagokio, SPKLren 103. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera berrikusiko dira, karatulan aurreikusitako indizea edo formula aplikatuta.

Nolanahi ere, ez da berrikusiko egikaritutako lehenengo 100eko 20a, ez eta kontratua formalizatu zenetik igarotako lehen bi urteak ere.

Kontratuari aplikatu beharreko berrikuspen-indizea edo -formula karatulako **32. atalean** ezarriko da, eta aldaezina izango da kontratua indarrean dagoen bitartean. Halaber, kontratua adjudikatzeko datari dagokionez, data bakoitzean prezioak berrikustea zehaztuko du.

45. Ingurumenaren, lanaren, gizartearen eta gardentasunaren arloko betebeharrak

Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzeari dagokionez, kontratazio-organoak behar diren neurriak hartuko ditu bermatzeko kontratua gauzatzean kontratistak betetzen dituela Europar Batasunaren zuzenbidean, zuzenbide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotzen duten ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko nazioarteko zuzenbideko xedapenetan ezarritako betebeharrak, eta, bereziki, SPKLren V. eranskinean ezarritakoak; nolanahi ere, kontratazio-organoak badu ahalmena lizitazio-prozeduran zehar kontratistak lehen aipatutako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko neurri egokiak hartzeko.

Arestian aipatutako betebeharrak ez betetzea, bereziki, soldatak behin eta berriz ez ordaintzeak edo atzeratzeak, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata-baldintzak baino txikiagoak aplikatzeak, larria eta doluzkoa bada, SPKLren 192. artikuluan aipatzen diren zigorrak ezartzea ekarriko du.

Kontratista behartuta dago lan-arloan eta gizarte-segurantzan indarrean dagoen araudia betetzera. Era berean, nahitaez bete behar ditu azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena; martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoa; azaroaren 8ko 31/1995 Legea, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa; eta urtarrilaren

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua, bai eta kontratua gauzatzean aldarrikatzen diren arauak ere.

Enpresa kontratistak aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako arauak eta baldintzak bete beharko ditu kontratua gauzatzeko aldi osoan; nolanahi ere, adjudikaziodunak langileen soldata-baldintzak bete beharko ditu, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera.

Lizitatzaileek fiskalitateari, ingurumenaren babesari, enpleguaren babesari, genero-berdintasunari, lan-baldintzei, lan-arriskuen prebentzioari eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari eta laneratzeari buruz indarrean dauden xedapenei eta kontratua gauzatzen den bitartean obrei aplikatzekoak izango diren desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko espezifiko bat kontratatzeko betebeharrari buruzko informazioa lortu ahal izango duten organismoaren edo organismoen zerrenda agiri honen 3. klausulan adierazitakoak izango dira.

Era berean, Gardentasunari, informazioa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratuaren adjudikaziodunak, errekerimendua egin ondoren, arau horretan aurreikusitako betebeharrak betetzeko behar den informazio guztia eman beharko dio Administrazioari.

46. Baliabide materialak eta giza baliabideak.

Kontratistak, obrak egiteko, kontratuan hitzartutako epeetan behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak jarri eta mantendu beharko ditu, eta, bereziki, administrazio-baldintza partikularren agiri honen III. eranskinean jasotakoak, eranskin horretan jasotako baliabideak atxikitzeko ereduaren arabera.

Enpresako langileak enpresa kontratistaren mende egongo dira soil-soilik, eta hark bakarrik izango ditu enplegatzaile izateari datxezkion eskubideak eta betebeharrak.

Era berean, enpresa kontratistak ezin izango ditu bere eskaintzan ezarritako langileak ordezkatu, Administrazioaren berariazko baimenik gabe.

Administrazioak desegokitzat jotzen duen edozein elementu baztertu ahal izango du, eta enpresak ebazpen horren aurka erreklamazioa egiteko eskubidea izango du Administrazioaren aurrean, hamar egun naturaleko epean, Administrazioak idatziz egiten dion jakinarazpenetik kontatzen hasita.

47. Gauzatzeko baldintza bereziak.

1. Langabeziak bereziki eragindako kolektiboen enplegua sustatzeko baldintzak.

Kontratua gauzatzeko behar diren langileen kontratazio berrietan, enpresa kontratistek lehentasuna emango diete legezko langabezia-egoeran dauden pertsonei, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera; horrela, egin beharreko lan zehatzaren ezaugarriak kontuan hartuta ezinezkoa dela justifikatzen ez bada, egiten diren kontratazio berrien % 15 gutxienez kolektibo horietako pertsonei dagozkiela bermatuko dute. Nolanahi ere, kontratazioa formalizatu aurretik, kontratazio-organoak onartu egin beharko du, zerbitzua emateko langileen justifikaziorik gabeko gehikuntzak saihesteko eta xedapen honetan adierazitakoa betetzen dela bermatzeko.

Kontratistak kontratua gauzatzearen esparruan egindako langileen kontratazio berriak egiaztatu beharko ditu, bai eta langabeziak bereziki eragindako kolektiboetako pertsonei dagozkienak ere, eta horretarako behar den dokumentazioa eman beharko du: izena, abizenak, NANa eta Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

Kontratazio-betebehar hori salbuetsi ahal izango da kontratua adjudikatzeak langileen subrogazioa badakar eta kontratu berriak kontratazio berrien beharra ez badakar.

Eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea eta legezko langabezia-egoeran dauden pertsonak kontratatzeko klausulan aurreikusitako betebeharra ez betetzea kontratua ez betetzetzat hartuko da, eta, horren ondorioz, kontratuaren aurrekontuaren % 10erainoko zigorra ezarriko da.

2. Gizarte-bermeko baldintzak.

Lan-baldintzak betetzeko baldintzak.

Enpresa kontratista behartuta dago lan-arloan, gizarte-segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean indarrean dauden xedapenak betetzera, eta, bereziki, garatu beharreko prestazioak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren mende daudenean, kontratista behartuta dago dagokion lan-ordenantzako eta hitzarmen kolektiboko xedapenak betetzera.

Enpresa kontratistak aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako arauak eta baldintzak bete beharko ditu kontratua gauzatzeko aldi osoan; nolanahi ere, adjudikaziodunak langileen soldata-baldintzak bete beharko ditu, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera, langileek baldintza onuragarriagoak onartuta ez badituzte (SPKL, 122.2 art.).

Enpresa adjudikaziodunak erantzukizunpeko adierazpenen bidez edo, hala dagokionean, erakunde eskudunen ziurtagirien bidez egiaztatu behar du kontratua gauzatzean bete egin direla lanpostuen babesari, lan-baldintzei eta lan-arriskuen prebentzioari buruz indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak, aplikatzekoak direnak.

Betebehar hori ez betetzea kontratua ez betetzea izango da, eta, ondorioz, kontratuaren aurrekontuaren % 10erainoko zigorra ezarriko da.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

Gutxieneko lan-baldintzei eta subrogazioari buruzko baldintzak (130. artikulua).

Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek adjudikaziodunari lan-harreman jakin batzuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen dionean, lizitatzaileei subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa emango zaie, neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza ahalbidetzeko beharrezkoa dena. Informazio hori SPKLren 130. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko eta **Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 6.1 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko ematen da, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk sartzeko.**

SPKLren 130. artikuluan eta Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 6.1 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko (3/2016 Legea, eusko legebiltzarrekoa, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoa), karatulan jasotzen da legezko arau bidez, hitzarmen kolektibo bidez edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio bidez subrogatzeko aukerari buruzko informazioa.

Kontratu honen adjudikaziodun suertatzen den enpresak, ukitutako langileen enplegatzailea bada, aipatutako informazioa eman beharko du, kontratuaren arduradunak hala eskatuta. Informazioaren zati gisa, subrogazioaren xede diren langileen zerrendak aurkeztu beharko dira, honako hauek adierazita: aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa eta kategoriari, kontratu motari, lanaldiari, antzinatasun-datari, kontratuaren mugaegunari, langile bakoitzaren urteko soldata gordinari eta subrogazioak eragiten dien langileei aplikatu beharreko indarreko itun guztiei buruzko xehetasunak.

Subrogazioa gertatu ondoren, lan-kostuak lehengo kontratistak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino handiagoak badira, kontratistak zuzeneko akzioa izango du lehengo kontratistaren aurka.

Era berean, eta urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa aplikatzeari kalterik egin gabe, kontratistak subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabeko soldatei erantzun beharko die, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioei ere, kontratua suntsiarazten bada eta kontratista berriak subrogatzen baditu ere; nolanahi ere, betebehar hori ez dagokio kontratista berriari. Kasu horretan, Administrazioak, soldata horiek ordaindu ez direla egiaztatuta, kontratistari zor dizkion zenbatekoak atxikiko dizkio, soldata horiek ordainduko direla bermatzeko, eta behin betiko bermea ez du itzuliko, horiek ordaindu direla egiaztatzen ez den bitartean.

Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz Zumaiako Udalak eskatzen duen informazio guztia emateko kontratua gauzatzen den bitartean.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

Betebehar horiek arau-hauste arintzat jotzen badira, kontratuaren aurrekontuaren % 10erainoko zigorra ezarriko da.

Arau-hauste larritzat jotako ez-betetzea kontratua suntsiarazteko eta kontratatzeko debekua deklaratzeko arrazoia izango da.

Azpikontratazioari buruzko baldintzak.

Azpikontratazioaren kasuan, kontratista nagusiak bere gain hartzen du Administrazioaren aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, administrazio-baldintza partikularren agiriaren eta kontratuaren baldintzen arabera, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barne.

Arau-hauste arintzat jotako betebehar hori betetzen ez bada, kontratuaren aurrekontuaren % 10erainoko zigorra ezarriko da.

Arau-hauste larritzat jotako ez-betetzea kontratua suntsiarazteko eta kontratatzeko debekua deklaratzeko arrazoia izango da.

Banakako eta taldeko lan-harremanen arloko araudia betetzeko baldintzak.

Enpresa kontratista administrazio-bidean zehapen irmoz kondenatzea, lan-harremanen arloko arau-hausteak egiteagatik (Lan Arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen 6. edo 7. artikuluetan tipifikatutakoak eta abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak), kontratua betearaztean egiten badira, kontratuaren aurrekontuaren % 5era arteko zigorra ezarriko da zehapena arau-hauste arinagatik ezartzen bada (6. artikulua), edo % 10era artekoa arau-hauste larriagatik ezartzen bada (7. artikulua).

LAZLren 8. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso larri bat egiteagatik kontratua betearaztean ezarritako kondenaren ondorioz, kontratuaren funtsezko baldintzaren bat ez dela bete ulertuko da, eta kontratistak kontratua suntsiaraziko du, zehapena administrazio-bidean irmoa denean.

Era berean, kontratista behartuta egongo da kontratuaren arduradunari unean-unean jakinaraztera lan-arriskuen prebentzioaren arloan ezartzen zaion edozein zehapen, kontratua betearaztean egindako egitateengatik, bai eta haren aurka planteatu diren balizko errekurtsoak eta horiei buruzko ebazpenak ere. Informatzeko betebehar hori betetzen ez bada, kontratuaren funtsezko baldintzaren bat ez dela bete ulertuko da, eta kontratistak, zehapena irmoa denean, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango du.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzeko baldintzak.

Abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lan Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen (LAZL) 11. edo 12. artikuluetan tipifikatutako lan-arriskuen prebentzioaren arloko arau-hausteak egiteagatik

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

administrazio-bidean zehapen irmo bidez enpresa kontratistari ezarritako kondena kontratuaren ez-betetzetzat hartuko da, eta horren ondorioz kontratuaren aurrekontuaren % 5era arteko zigorra ezarriko da zehapena arau-hauste arinagatik ezartzen bada (11. artikulua) edo % 10era artekoa arau-hauste larriagatik ezartzen bada (12. artikulua).

LAZLren 13. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso larri bat egiteagatik kontratua betearaztean ezarritako kondenaren ondorioz, kontratuaren funtsezko baldintzaren bat ez dela bete ulertuko da, eta kontratistak kontratua suntsiaraziko du, zehapena administrazio-bidean irmoa denean.

Era berean, kontratista behartuta egongo da kontratuaren arduradunari unean-unean jakinaraztera lan-arriskuen prebentzioaren arloan ezartzen zaion edozein zehapen, kontratua betearaztean egindako egitateengatik, bai eta haren aurka planteatu diren balizko errekurtsoak eta horiei buruzko ebazpenak ere. Informatzeko betebehar hori betetzen ez bada, kontratuaren funtsezko baldintzaren bat ez dela bete ulertuko da, eta kontratistak, zehapena irmoa denean, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango du.

3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako baldintzak.

Enpresa adjudikaziodunak, kontratua gauzatzean, neurriak ezarri beharko ditu honako hauetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko: enplegua lortzean, sailkapen pertsonalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, bai eta kontratua gauzatzeari atxikitako langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egiten laguntzen duten neurriak ere, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

Enpresa adjudikaziodunak bermatuko du hizkuntzaren erabilera ez-sexista emandako dokumentu guztietan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua betez. Lege horren babesean, argitara daitezkeen irudietan, pertsonei ez zaie erakutsiko, sexuaren arabera, giza duintasun txikiagoa edo handiagoa dutela, edo sexu-objektu hutsak direla, estereotipo sexistak saihestuko dira eta sexu-, rol- eta genero-identitatearen dibertsifikazioa bultzatuko da.

Enpresa edo erakunde adjudikaziodunak lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak hartzea bermatuko du, hamar langile baino gehiago behar dituzten kontratuetan.

Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoarekin eta enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuarekin bat etorriz:

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

- Enpresak 50 langile baino gehiago baditu, enpresaren Berdintasun Plana aurkeztu beharko du.

Urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuak berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen ditu, eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua, laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzkoa, aldatzen du, berdintasun-plan bat egiteko betebeharra sortzen duten pertsonen kopurua kalkulatzeko. Dekretu horren arabera, enpresaren plantilla osoa hartuko da kontuan, haren lantoki kopurua edozein dela ere eta lan-kontrataziorako modua edozein dela ere, aldizkako kontratu finkoak dituztenak, iraupen jakineko kontratuak dituztenak eta langileak lagatzeko kontratuak dituztenak barne.

SPKLren 62. eta 210. artikuluen arabera, kontratuaren arduradunak kontratuaren berdintasun-baldintzak betetzen diren ikuskatuko du, jarraipena egingo du, erabakiak hartuko ditu eta horretarako behar diren jarraibideak emango ditu. Ikuskapena amaitutakoan ez ezik, etengabe egingo da. Halaber, baldintza horiek betetzeko, enpresa adjudikaziodunak Berdintasun Sailaren aholkularitza eta laguntza jaso ahal izango du.

Klausula honetako betekizunak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira SPKLren ondorioetarako, eta ez betetzeak kontratua suntsiaraztea eragin dezake, aipatutako legearen 211. f) artikuluaren arabera.

4. Azpikontratistei ordainketak betetzeko baldintzak (217. artikulua).

Kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei dagozkien ordainketa-epeak bete beharko ditu kontratistak, SPKLren 216. eta 217. artikuluetan ezarritakoak.

Kontratistak, hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda zehatza bidali beharko dio kontratuaren arduradunari, bai eta ordainketa epearekin lotura zuzena duten azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere.

Era berean, Udalak eskatuta, prestazioa amaitu ondoren ordainketak egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, SPKLren 216. artikuluan eta merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean legez ezarritako ordainketa-epeen barruan, aplikatzekoa zaien guztian.

Betearazpen-baldintza berezi hori betetzen ez bada, karatulan horretarako aurreikusten diren zigorrak ezarriko dira.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

48. Konfidentzialtasuna.

Enpresa kontratistak kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazio guztia konfidentziala da. Kontratistak eta kontratistak kontratua gauzatzeko izendatutako langileek ezin izango dute beretzat erabili, ez eta hirugarrenei eman ere, kontratatutako lanen gaineko daturik edo informaziorik, ez eta kontratua gauzatzean eskuratzen duten informaziorik eman ere, Administrazioaren idatzizko baimenik gabe. Beraz, eskura dituzten baliabide guztiak jarri beharko dituzte, egindako lanaren informazioa eta emaitzak konfidentzialak eta isilpekoak izan daitezen. Nolanahi ere, datu pertsonalak tratatzea eskatzen ez duten lanetan, enpresak eta langileek debekatuta dute datu pertsonaletara sartzea, eta isilpean gorde behar dituzte zerbitzua ematean langileek jakin ahal izan dituzten datuak.

SPKLren 133. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, enpresa lizitatzaileek adierazi beharko dute, hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpenean (**I. eranskina**) zein dokumentu administratibo eta tekniko eta datu aurkeztu dituzten, beren ustez, konfidentzialtzat hartzeko eta justifikatzeko. Egoera hori, gainera, argi eta garbi islatu beharko da (gaininprimatuta, bazterrean edo beste edozein modutan) dokumentu gisa adierazitako dokumentuan bertan, eta fitxategi independenteetan banakatuta egon beharko du, artxiboa "KONFIDENTZIALA" hitzarekin hasiz. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak isilpekotzat jo daitezke sekretu teknikoak edo komertzialak direnean, eskaintzen isilpeko alderdiak direnean eta lehia faltsutzeko edukia erabil daitekeen beste edozein informazio dagoenean, dela lizitazio-prozedura horretan, dela ondorengo beste batzuetan.

Kontratazio-organoaren eta haren mendeko zerbitzuen konfidentzialtasun-betebeharra ezin izango da hedatu adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osora, ez eta kontratazio-organoak lizitazio-prozeduran zehar zuzenean edo zeharka sortzen dituen txostenen eta agirien eduki osora ere. Hedapen murriztua duten dokumentuetara bakarrik zabaldu ahal izango da, eta inola ere ez publikoki eskuragarriak diren dokumentuetara. Era berean, ezingo du eragotzi egindako kontratuen alderdi ez-konfidentzialen zabalkunde publikoa, hala nola, hala badagokio, likidazioa, zerbitzua gauzatzeko azken epeak, kontratatu eta azpikontratatu diren enpresak, eta, nolanahi ere, eskaintzaren funtsezko zatiak eta kontratuaren ondorengo aldaketak, betiere Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa errespetatuz.

Kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du kontratistak, baldin eta informazio horri izaera hori eman bazaio baldintza-agirietan edo kontratuan, edo, bere izaera dela-eta, konfidentzialtzat hartu behar bada. Betebehar horrek bost urteko epea izango du informazio horren berri izaten denetik, baldintza-agiriek edo kontratuak epe luzeagoa ezartzen ez badute. Epe hori, nolanahi ere, zehaztu eta mugatu egin beharko da.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

Kontratazio-organoak lizitatzaileek aurkeztutako proposamenen konfidentzialtasuna bermatzen du, SPKLren 133. artikuluaren arabera; ezin izango dute zabaldu enpresaburuek konfidentzialtzat jo duten informazioa, kontratazio-organoak hala erabaki badu.

Kontratua egiteari buruzko datu jakin batzuk ez argitaratzeko aukera egongo da, baldin eta, espedientean behar bezala justifikatuta, uste bada informazio hori zabaltzeak arau baten aplikazioa oztopa dezakeela, interes publikoaren aurkakoa izan daitekeela edo enpresa publiko edo pribatuen bidezko merkataritza-interesei edo haien arteko lehia leialari kalte egin diezaiekeela, edo sekretutzat edo erreserbatutzat jotako kontratuak direnean, edo indarrean dagoen legeriaren arabera segurtasun-neurri bereziekin batera gauzatu beharrekoak direnean, edo Estatuaren segurtasunaren funtsezko interesak babesteak hala eskatzen duenean eta hala adierazi denean SPKLren 19. artikuluaren 2. atalaren c) letran aurreikusitakoaren arabera.

VI. KONTRATUAK ALDATZEA ETA ETETEA

49. Kontratua aldatzea

SPKLren 203. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta SPKLn kontratistaren ondorengotzari, kontratua lagatzeari, prezioak berrikusteari eta kontratua gauzatzeko epea luzatzeari buruz aurreikusitako kasuak alde batera utzi gabe, interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango dira administrazio-kontratuak, SPKLn aurreikusitako kasuetan eta moduan, eta 191. artikuluan araututako prozeduraren arabera, 207. artikuluan aurreikusitako berezitasunekin.

Kontratazio-organoek egindako administrazio-kontratuak honako kasu hauetan bakarrik aldatu ahal izango dira indarrean dauden bitartean:

a) Administrazio-baldintza partikularren agirian hala aurreikusi denean, 204. artikuluan ezarritako moduan eta baldintzetan;
b) Salbuespen gisa, administrazio-baldintza partikularren agirian aurreikusita ez dagoen aldaketaren bat egin behar denean, betiere 205. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Beste edozein kasutan, indarrean dagoen kontratu bat itundutakoa ez den beste modu batean gauzatu behar bada, kontratua suntsiarazi eta beste bat egin beharko da, dagozkion baldintzetan, hala badagokio, SPKLn ezarritakoaren arabera beste lizitazio publiko bat deitu eta bideratu ondoren, hargatik eragotzi gabe 213. artikuluaren 6. paragrafoan xedatutakoa, kontratistak segurtasun, zerbitzu publiko edo balizko aurri-arrazoiengatik beharrezkoak diren neurriak hartzeko duen betebeharrari dagokionez.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

Kontratuaren aldaketak 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira, eta 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoaren arabera argitaratu beharko dira.

Aurreikusitako aldaketak (SPKLren 204 art.).- Herri-administrazioen kontratuak hasierako prezioaren ehuneko hogeira arte aldatu ahal izango dira indarrean dagoen bitartean, karatulako 37. klausulan berariaz aukera horretaz ohartarazi bada.

Aurreikusi gabeko aldaketak (SPKLren 205 art.).- Administrazio-baldintza partikularren agirian aurreikusi ez diren aldaketak, edo, aurreikusiak izan arren, SPKLren 204. artikuluan xedatutakoarekin bat ez datozen aldaketak, soilik honako baldintza hauek betetzen baditu egin ahal izango dira:

a) SPKLren 205.2 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean justifikatuta egotea.
b) Beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko behar-beharrezkoak diren aldaketak egitera mugatzea.

205. artikuluan jasotako kontratu-aldaketen kasuan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, baldin eta aldaketa horien zenbatekoa, bakarka edo batera hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren (BEZik gabe) ehuneko 20 baino handiagoa ez bada.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera aldaketa ez bada nahitaezkoa kontratistarentzat, kontratazio-organoak idatziz onartu beharko du aldaketa, eta bestela kontratua suntsiaraziko da 211. artikuluko 1. paragrafoko g) idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

Kontratua 205. artikuluan xedatutakoaren arabera aldatu aurretik, entzunaldia eman beharko zaio proiektua edo zehaztapen teknikoak idatzi dituenari, baldin eta zerbitzu-kontratu baten ondorioz kontratazio-organotik kanpoko hirugarren batek prestatu baditu, eta gutxienez hiru eguneko epean egoki iritzitako gogoetak egin ditzan.

Arau harmonizatupeko kontratu bat aldatu duten kontratazio-organoek, IV. eranskinean zerrendatutako zerbitzu-kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak izan ezik, 205. artikuluaren 2. atalaren a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan, dagokion aldaketa-iragarkia argitaratu beharko dute «Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean», SPKLn ezarritakoaren arabera.

Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean kontratua aldatu duten kontratazio-organoek, erregulazio harmonizatuaren mende dagoen edo ez alde batera utzita, eta aldaketa justifikatzen duen arrazoia gorabehera, aldaketa-iragarki bat argitaratu beharko dute kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean, hura onartu eta 5 eguneko epean. Iragarki horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta, hala badagokio, onartu aurretik eskatu diren txosten guztiak

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

aurkeztu beharko dira, adjudikaziodunak emandakoak edo kontratazio-organoak berak emandakoak barne.

Adierazitako guztiaren arabera, aldaketa egiteko jarraitu beharreko prozedura honako hau da:

1.- Kontratuaren arduradunaren txostena, honako hauek zehaztuz: aldaketaren interes publikoko arrazoiak, irismen kualitatiboa eta kuantitatiboa, inguruabarrak eta horien egiaztapen objektiboa.
2.- Kontratistari bost (5) egun balioduneko entzunaldia ematea.
3.- Hala badagokio, proiektua edo zehaztapen teknikoak idatzi dituenari entzutea, baldin eta kontratazio-organoaz kanpoko hirugarren batek prestatu baditu hiru (3) egun balioduneko epean.
4.- Txosten juridikoa.
5.- Fiskalizazio ekonomikoari buruzko txostena.
6.- Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.
7.- Aldaketaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea.
8.- Aldaketa-iragarkia EBAOn argitaratzea, baldin eta kontratua erregulazio harmonizatuaren mende badago (salbu eta zerbitzua SPKLren IV. eranskinean jasotakoetariko bat bada), eta aldaketak EBAOko a) eta b) letretako kasuetako bati erantzuten badio. 205.2 SPKL.

SPKLren 309. artikuluan adierazitakoarekin bat, prezioa exekuzio-unitateen bidez zehazten den kasuetan, ez dira aldaketatzat hartuko prestazioa behar bezala gauzatzen den bitartean kontratuan aurreikusitako unitateen gainean benetan gauzatutako unitateen kopuruan soilik gertatzen diren aldaketak. Unitate horiek likidazioan jaso ahal izango dira, betiere gastuaren igoera kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoa ez bada.

Obra-kontratua aldatzea (SPKLren 242. artikulua): SPKLren 242. Artikuluan adierazitakoaren arabera, nahitaezko izango dira kontratistarentzat obra-kontratuaren aldaketak, baldin eta SPKLren 206. artikuluan ezarritakoaren arabera erabakitzen badira. Aldaketak obra-unitateak kentzea edo murriztea badakar, kontratistak ez du inolako kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango.

Aldaketek proiektuan aurreikusita ez dauden obra-unitateak sartzea badakarte, edo proiektuan finkatutakoez bestelako ezaugarriak badituzte, eta beste lizitazio bat egin beharrik ez badago, Administrazioak finkatuko ditu horiei aplikatu beharreko prezioak, kontratistari gutxienez hiru egun balioduneko entzunaldia eman ondoren. Kontratistak finkatutako prezioak onartzen ez baditu, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontratatu ahal izango ditu prezio berberetan, zuzenean betearazi ahal izango ditu edo kontratua suntsiaraztea erabaki ahal izango du, SPKLren 211. artikuluaren arabera.

Aldaketak gerora eta behin betiko ezkutuan geratu behar diren obra-unitateak jasotzen dituenean, horien neurketa partziala egin baino lehen, dagokion administrazioko kontu-hartzailetzari jakinarazi beharko dio, gutxienez bost egun

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

lehenago, egoki baderitzo, egintza horretara joan ahal izan dadin inbertsioaren egiaztapen materiala egiteko, eta horrek ez du esan nahi, obrak amaitu ondoren, harrera egin ezin zaionik, SPKL, 243.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, SPKLren 210.2 artikuluari dagokionez.

Obraren zuzendari fakultatiboak proiektua aldatzea beharrezkotzat jotzen badu eta lege honek horretarako arautzen dituen baldintzak betetzen badira, kontratazio-organoari baimena eskatuko dio dagokion espedientea hasteko. Espedientea honako jarduketa hauekin gauzatuko da:

a) Proiektuaren aldaketa idaztea eta teknikoki onartzea.
b) Kontratistari eta proiektua idatzi duenari entzutea, gutxienez hiru egunez.
c) Kontratazio-organoak espedientea eta beharrezko gastu osagarriak onartzea.

Hala ere, honako hauek ez dira aldaketatzat hartuko:

i. Gehiegizko neurketak, hau da, obra behar bezala gauzatzen den bitartean proiektuaren neurketetan aurreikusitako unitateen aldean benetan gauzatutako unitateen kopuruan soilik gertatzen den aldaketa, baldin eta, oro har, gastua hasierako kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino gehiago handitzen ez bada. Gehiegizko neurketa horiek obraren azken ziurtagirian jasoko dira.
ii. Prezio berriak sartzea, lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan ezarritako prozeduren bidez kontraesanean finkatuak, baldin eta prezio horiek ez badakarte kontratuaren prezio osoa igotzea eta ez badiete eragiten kontratuaren hasierako aurrekontuaren ehuneko 3 gainditzen duten obra-unitateei.

Aldaketa bat izapidetzeak obrak erabat aldi baterako etetea eskatzen duenean eta horrek interes publikoari kalte larriak eragiten dizkionean, kontratazio-organoak erabaki ahal izango du obrek behin-behinean jarraitzea, zuzendaritza fakultatiboak egingo duen proposamen teknikoan aurreikusi bezala, betiere aurreikusitako gehieneko zenbatekoak ez badu gainditzen kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20, BEZik gabe, eta hura finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa badago.

Horretarako izapidetu beharreko behin-behineko jarraipen-espedienteak honako jarduketa hauek barne hartzea eskatuko du:

a) Obraren zuzendari fakultatiboak egindako proposamen tekniko arrazoitua, aldaketaren gutxi gorabeherako zenbatekoa, egin beharreko obren oinarrizko deskribapena eta aldaketa 203. artikuluaren 2. paragrafoan aurreikusitako kasuetako batean dagoelako justifikazioa jasotzen dituena.
b) Kontratistari entzutea.
c) Kontratazio-organoaren adostasuna.
d) Kreditua badagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

e) Proiektuak Gainbegiratzeko Bulegoaren txostena, proposamen tekniko arrazoituak prezio berriak sartzen baditu. Txostenak arrazoitu beharko du prezio berriak merkatuko prezio orokorretara egokitzen direla, 102. artikuluaren 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Behin-behineko baimena emateko erabakia hartu eta sei hilabeteko epean, proiektua teknikoki onartuta egon beharko da, eta zortzi hilabeteko epean, kontratua aldatzeko espedientea.

Zortzi hilabeteko epe horren barruan, aurreikusitako obra-unitateetatik, gerora eta behin betiko ezkutuan geratu behar ez diren zatiak egingo dira lehentasunez.

Zortzi hilabeteko epean egindako obrak lege honetan aurreikusitako moduan egiaztatu eta ordainduko dira, honako berezitasun hauekin:

Hasierako proiektuan aurreikusi gabeko unitateak barne hartzen dituzten espediente aldatua izapidetzen den bitartean eman beharreko ziurtagiriek arrazoitutako proposamen teknikoan agertzen diren prezioak hartuko dituzte erreferentziatzat, eta horien ordainketak behin-behineko konturako ordainketatzat hartuko dira, aldatutako proiektua onartu ondoren egin daitezkeen zuzenketa eta aldaketei lotuta. Hori guztia, azken neurketan gerta daitezkeen zuzenketa eta aldaketei kalterik egin gabe eta barne hartzen dituzten obrak inola ere onartu eta jasotzea ekarri gabe.

50. Obrak etetea

Administrazioak, interes publikoko arrazoiengatik, kontratuaren betearazpena etetea erabaki ahal izango du. Era berean, kontratua eten egingo da SPKLren 198.5 artikuluan adierazitako egoera gertatzen bada. Kontratua eteteko, SPKLren 208. artikuluan eta APKLEOren xedapen bateragarrietan xedatutakoari jarraituko zaio.

SPKLren 208. artikuluaren arabera, Administrazioak kontratua etetea erabakitzen badu edo SPKLren 198.5 artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik eteten bada, Administrazioak benetan jasandako kalte-galerak ordainduko dizkio kontratistari, aipatutako 208. artikuluan ezarritako arauen arabera.

Etetea erabaki ondoren, administrazioak benetan jasandako kalte-galerak ordainduko dizkio kontratistari, honako arau hauen arabera:

a) Kontratua arautzen duen baldintza-agiriak bestelakorik ezartzen ez badu, ordainketa horrek honako kontzeptu hauek baino ez ditu jasoko, betiere 1.etik 4.era bitarteko puntuetan modu frogagarrian egiaztatzen bada:

1.- Behin betiko bermea mantentzeagatiko gastuak.
2.- Kontratistak kontratua eteteko unean kontratua gauzatzeko hitzartuta zeuzkan lan-kontratuak azkentzeagatiko edo eteteagatiko kalte-ordainak.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

3.- Etenaldian nahitaez kontratura atxikita egon behar duten langileen soldata-gastuak.
4.- Makinen, instalazioen eta ekipoen alokairuak edo mantentze-kostuak, baldin eta kontratistak egiaztatzen badu bitarteko horiek ezin izan zirela erabili etendako kontratua gauzatzeaz bestelako helburuetarako.
5.- Kontratistak etenaldian gauzatu behar zituen prestazioen prezioaren % 3, lan-programan edo kontratuan bertan aurreikusitakoaren arabera.
6.- Kontratistak sinatutako aseguru-polizei dagozkien gastuak, kontratuaren xedeari lotutako administrazio-klausulen agirian aurreikusitakoak.

b) Dagokion aktan jasota dauden etenaldiak bakarrik ordainduko dira. Kontratistak akta hori egiteko eskatu ahal izango du. Administrazioak eskaera horri erantzuten ez badio, kontrakorik frogatu ezean, ulertuko da kontratistak eskabidean adierazitako egunean hasi dela etendura.

c) Erreklamazioa egiteko eskubidea urtebeteren buruan preskribitzen da, kontratistak kontratua berriro gauzatzeko agindua jasotzen duenetik kontatzen hasita.

VII. KONTRATUEN LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

51. Kontratuen lagapena.

Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio adjudikaziodunak, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira, eta, gainera, SPKLren 214.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira, eta lagapenak merkatuko lehiaren benetako murrizketa eragiten ez badu.

Ezin izango da baimendu hirugarren bati lagatzea, horrek kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketa badakar, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua badira.

Kontratistek beren eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko gutxieneko baldintzak honako hauek dira:

a) Kontratazio-organoak, aldez aurretik eta berariaz, lagapena baimentzea. Baimen hori emango da hurrengo letretan aurreikusitako baldintzak betetzen badira. Baimen-eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da, eta epe hori igarotakoan, administrazio-isiltasunez eman dela ulertu beharko da.

b) Lagatzaileak gutxienez kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gauzatuta izatea. Baldintza hori ez da aplikatuko baldin eta lagapena gertatzen bada kontratista konkurtsoan egonda, likidazio-fasea ireki bada ere, edo epaitegi eskudunari jakinarazi badio konkurtsoa deklaratzeko negoziazioak hasi dituela birfinantzaketa-akordio bat lortzeko, edo hitzarmen-proposamen aurreratu baterako atxikipenak lortzeko, konkurtso-legerian aurreikusitako moduan.

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

c) Lagapen-hartzaileak Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna eta kontratua gauzatzeko fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea, eta behar bezala sailkatuta egotea, baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio, eta kontratatzeko debekuaren kausaren batean sartuta ez egotea.

d) Lagapena adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen artean formalizatzea, eskritura publikoan.

Lagapen-hartzailea lagatzaileari legozkiokeen eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

4. Kontratua lagatzeko prozedura honako hau izango da:

1.- Kontratistak idazki bat bidaliko dio kontratuaren arduradunari, lagapena egiteko baimena eskatzeko. Eskabide horri honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:
- Kontratua lagatzea eskatzeko aukera ematen duen inguruabarra egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2. artikuluko c) letran jasotako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

2.- Kontratuaren arduradunak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez bete behar den ala ez adieraziz, eta, hala bada, baldintza hori betetzen den ala ez adieraziz. Halaber, adierazi beharko du errespetatu egiten direla SPKLren 214. artikuluko 1. ataleko bigarren paragrafoan jasotako mugak.
3.- Txosten juridikoa.
4.- Fiskalizazio ekonomikoari buruzko txostena.
5.- Kontratazio-organoaren ebazpena, lagapena baimentzeko eta kontratistari jakinarazteko.
6.- Lagapena kontratatzailearen profilean baimentzen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea.
7.- Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

Lagapen-hartzaileak bermea Zumaiako Udalaren Diruzaintzan gordailatzea. Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzailearena formalki eratuta egon arte.

52. Azpikontratazioa

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat gauzatzea, jarraian adierazten diren betekizunei lotuta, non eta, adierazten den bezala, prestazioa edo prestazioaren zati bat zuzenean lehenengoak gauzatu behar ez duen.

Azpikontratuak egiteko, baldintza hauek bete beharko dira:

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

a) Lizitatzaileek EKAB agirian eta/edo erantzukizunpeko adierazpenean adierazi beharko dute azpikontratatu nahi duten kontratuaren zatia, zenbatekoa adieraziz, eta kontratua gauzatzeko ardura emango zaien azpikontratisten izena edo enpresa-profila, lanbide-kaudimenaren edo gaitasun teknikoaren baldintzen arabera zehaztua.

b) Nolanahi ere, kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua adjudikatu ondoren eta, beranduenez, kontratua gauzatzen hasten denean, kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela, azpikontratatuko den prestazioaren zatia eta azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkariak, eta behar bezala justifikatu beharko du azpikontratistak azpikontratazioa gauzatzeko duen gaitasuna, dauzkan elementu teknikoei eta giza elementuei eta esperientziari dagokienez.

Era berean, administrazioari egin beharreko azpikontratuaren berri emateko idazkiarekin batera, kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLren 71. artikuluaren arabera. Egiaztapen hori azpikontratistaren erantzukizunpeko adierazpenaren bidez gauzatu ahal izango da.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari kontratu nagusia gauzatzean informazio hori aldatzen bada, bai eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia ere.

Azpikontratistak azpikontratazioaren xede den kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia badu, horren berri ematea nahikoa izango da kontratuaren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta hori beharrezkoa bada larrialdi-egoera bati erantzuteko edo premiazko neurriak hartzea eskatzen badu eta behar bezala justifikatzen bada.

c) Eskaintzan adierazitakoarekin bat ez datozen azpikontratuak, eskaintzan izendunak ez diren enpresaburuekin egiten direlako edo eskaintzan adierazitakoez bestelako zati batzuk aipatzen dituztelako, ezin izango dira egin harik eta jakinarazpena egin eta aurreko b) letran aipatutako justifikazioak aurkeztu eta hogei egun igaro arte, salbu eta aurretik berariaz baimendu badira, betiere Administrazioak epe horren barruan horien aurka dagoela jakinarazi ez badu. Araubide hori aplikatuko da, halaber, azpikontratistak eskaintzan beren lanbide-profila deskribatuz identifikatu badira.

Baldintza horiek ez betetzeak eta azpikontratistaren gaitasuna edo larrialdi-egoera eragiten duten inguruabarrak edo azpikontratazioa premiazkoa egiten dutenak ez egiaztatzeak honako ondorio hauetakoren bat izango du, SPKLn aurreikusitako beste batzuen artean, kontratua gauzatzean izango duen eraginaren arabera:

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

a) Azpikontratuaren zenbatekoaren % 50erainoko zigorra ezartzea kontratistari.

b) Kontratua suntsiaraztea, betiere SPKLren 211. artikuluaren 1. atalaren f) letraren bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean bakarrik egongo dira behartuta, eta hark hartuko du bere gain, beraz, Administrazioaren aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, administrazio-baldintza partikularren agiriaren eta kontratuaren baldintzen arabera, SPKLren 201. artikuluak aipatzen dituen ingurumen, gizarte edo lan arloko betebeharrak betetzea barne.

Kontratistak ezin izango du inola ere hitzartu kontratuaren zati bat exekutatzea ordenamendu juridikoaren arabera kontratatzeko gaitasunik gabe utzitako pertsonekin edo SPKLren 71. artikuluko kasuren batean sartuta daudenekin.

Kontratistak azpikontratazioaren berri eman beharko die langileen ordezkariei, lan-legeriaren arabera.

SPKLren 215.etik 217.era bitarteko artikuluetan aipatzen diren azpikontratuak eta hornidura-kontratuak izaera pribatukoak izango dira beti.

SPKLren berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoari kalterik egin gabe, azpikontratistek ez dute zuzeneko akziorik izango administrazio kontratatzailearen aurrean, kontratu nagusia eta azpikontratuak gauzatzearen ondorioz kontratistak haiekin hartutako betebeharrengatik.

Azpikontratistei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketak (216. artikulua) .- Kontratista behartuta dago azpikontratistei edo hornitzaileei hitzartutako prezioa ordaintzera, ondoren adierazten diren epe eta baldintzetan:

a) Finkatutako epeak ezin izango dira merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoak baino kaltegarriagoak izan, eta kontratista nagusiak ondasunak edo zerbitzuak onartzen edo egiaztatzen dituen egunetik aurrera zenbatuko dira, betiere azpikontratistak edo hornitzaileak faktura legez ezarritako epeetan entregatu badute.
b) Ondasunak ematen direnetik edo zerbitzua ematen denetik gehienez ere hogeita hamar eguneko epean onartu beharko da. Epe horren barruan adierazi beharko dira, hala badagokio, desadostasun-arrazoiak. Epe horretan egiten ez bada, ulertuko da ondasunak onartu direla edo zerbitzuak emateko adostasuna egiaztatu dela.
c) Kontratistak ezarritako epean ordaindu beharko ditu fakturak, a) idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera. Ordainketa berandutuz gero, azpikontratistak edo hornitzaileak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak kobratzeko eskubidea izango du, merkataritza-

ESKU83921be1-a345-43fe-bf47-ebec7d2b79b0

eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako baldintzetan.

d) Aurreko artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe. Fakturazio-erregistroak elektronikoki bidaltzeari buruzko abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 69 bis artikulua. Faktura elektronikoa sustatzeari eta sektore publikoko fakturen kontularitza-erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikuluaren 1. paragrafoan ezarritako kasuetan dauden azpikontratistek faktura elektronikoa erabili beharko dute kontratista nagusiarekiko harremanetan, baldin eta faktura horren zenbatekoa 5.000 eurotik gorakoa bada. Faktura elektronikoa kontratista nagusiari aurkeztu beharko diote, hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. paragrafoan aipatzen den erregistroaren bidez, xedapen horretan aurreikusitako egunetik aurrera.

Aurrekoez bestelako kasuetan, azpikontratistentzat aukerakoa izango da faktura elektronikoa erabiltzea eta SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. paragrafoan aipatutako erregistroan aurkeztea.

e) Azpikontratistek ezin izango diete artikulu honetan aitortutako eskubideei balioz uko egin, eskuratu aurretik edo ondoren, Kode Zibilaren 1110. artikulua aplikatu gabe.

Kontratazio-organo horrek egiaztatu ahal izango du kontratu publikoen kontratista adjudikaziodunek – SPKLren 12. artikuluan halakotzat jotzen dira – zorrotz bete dituztela kontratu horietan parte hartzen duten azpikontratista edo hornitzaile guztiei egin behar dizkieten ordainketak.

